



Enpresa-Erakundea / Empresa- Entidad

Leartiker

Lanpostua / Puesto:

Elikagaien Teknologian ikerlaria

Lanpostuaren helburua / Objetivo del puesto:

Elikagaien Teknologian ikerlaria

Lantokia / Lugar de trabajo:

Leartiker, MARKINA-XEMEIN (Bizkaia)

Egin beharreko zereginak edo eginkizunak / Tareas o funciones a realizar:

LEARTIKER Leartiker MARKINA-XEMEINen (Bizkaia) kokatutako Zentro Teknologiko bat gara. Elikagaien Teknologia eta Polimeroen Teknologia gure bi espezializazioekin, enpresa ehunari balioa ematen diogu gure I+G+B jardueraren eta horren transferentzia egokiaren bitartez. Basque Research & Technology Alliance (BRTA) aliantza teknologikoko kide gara eta Foku Anitzeko Zentro Teknologiko gisa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide ere bagara. EAEko lehen enpresa taldea eta munduko kooperatiba handiena den MONDRAGON korporazioko kooperatiba eredian oinarritutako irabazi asmorik gabeko zentro teknologiko bat gara. Gure ikerketa- eta transferentzia-jarduera bi teknologia nagusitan banatzen ditugun lau espezializazio teknologiko handitan garatzen dugu: Elikagaien Teknologiaren esparruan, Esneki Zentroa eta PREST espezializazioetan lan egiten dugu, lehenengoa, EAEko lehenengo esneki zentroa, gazta eta esneki berriak garatzera bideratuta eta bigarrena, landare- edo animalia-jatorriko lehengaietatik abiatuta ideiatik hasi eta merkaturatu arte produktu osasungarri eta jasangarri berriak garatzen dituen. Polimeroen Teknologian, Osasuna eta Garraio Jasangarria espezializazio teknologikoak ditugu. Osasunaren esparruan, gailu medikoetan erabiltzeko material polimeriko biobateragarri berriak garatzen ditugu, eta, Garraio Jasangarriaren kasuan egitura polimeriko arinak, fidagarriak eta isilak garatzen ditugu, eta haien portaera aurreikusten dugu digitalizazio-tekniken bitartez. Talentua beti lehen postuan. Pertsonak zarete gure baliorik handiena eta zuen talentuak mugitzen du gure egunerokoa. Horregatik, Leartikerren talentua garatzen dugu. Hazten ari garen familia txiki bat gara... Eta proiektu zoragarri honen parte diren Pertsonen garapenerako Leartiker munduko lekurik onena izan dadin egiten dugu lan. LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA Leartikerren hazten jarraitzen dugu... Leartiker Elikagaien Teknologia lantaldere batzeko Pertsona bat bilatzen ari gara, PREST espezializazio teknologikoan, hain zuzen ere. Espezializazio honetan, ideiatik merkatura, animalia zein landare-jatorriko tokiko lehengaiekin balio-erantsidun produktu osasungarri eta jasangarri berriak garatzen ditugu. Pertsona proteina-iturri berrien ikerketa lerrora gehituko da eta barne zein

Eskaintzaren erreferentzia / Ref. de la oferta: Lea-Eli-191	UPV/EHUko Enplegu Foroa Foro de Empleo de la UPV/EHU BIZKAIKO CAMPUSA	 Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
---	--	--

kanpo (finantziazio publikoa edota pribatua) I+G+B proiektuen kudeaketa teknikoa eta ekonomikoa egingo du, baita aukera berriak identifikatzea eta bilatzea ere.

Eskatzen diren betekizunak / Requisitos exigidos:

BETEKIZUNAK Lantalde honen parte izateko hurrengo beharko duzu: FORMAKUNTZA | Doktoretza titulua edo fase aurreratuan ESPERIENTZIA PROFESIONALA | Gutxienez aldez-aurreko 3 urteko esperientzia antzerako lanpostuetan HIZKUNTZAK | Ingelesaren domeinua, ahozkoa eta idatzizkoa. Beste hizkuntza batzuetan ezagutza baloratuko dugu!

Eskaintzen dena / Se ofrece:

ZER ESKAINTZEN DUGU? Etorkizuneko proiektu bat puntako ezagutza arlo batean eta eskaera handiko merkatu batekin Erakundearen erabakietan parte hartzen duen lantalde gazte, proaktibo eta dinamiko baten parte izatea zeinetan profesionalki eta pertsonalki garatuko zaren zure harri-koskorra ekarriz etorkizuneko gizartera Puntako ekipoak dituzten laborategietan garatzea Proiektu tipologia ezberdinetan parte hartuz beste erakunde eta Leartikerreko Bezero diren beste enpresa batzuen errealitatea ezagutzea Gure beharrianetara egokitzeko hasierako formakuntza eta etengabekoa pertsonalizatua zure Banakako Garapen eta Kontribuzio Planaren bitartez Karrera Planarekin lotuta dagoena Lan-kontratu mugagabea astelehenetik ostiralera eta ordutegi eta egutegi malgu bat Telelana egiteko aukera urteko markoaren %30ean Gure kultura: LEARTIKER ZIRRARA #PertsonentzakoTeknologia Denon eta denontzako proiektu kooperatiboa Leartikerren bikaintasuna errepresentatzen duen kultura batean sinisten dugu zeinetan adiskidetasun harremanak, familia-sentimendua, hurbiltasuna, konfiantza, aldez-aurretiko jarrera ona eta konpromisoa nagusitzen diren Gure baloreak: INPLIKAZIOA, KONFIANTZA, ZERBITZURAKO GOGOIA, POSTIBISMOA, ZORROZTASUN ZIENTIFIKOA Berrikuntza irekian oinarritutako eredu batean, Leartiker elkarlanean oinarritutako proiektua da, ezagutza balio erantsi bilakatuz, dibertsifikazio prozesuak erraztuz eta lanpostu berriak sortuz. Leartiker proiektuaren parte izateaz harro dagoen Pertsona lantaldea gara. Nabari duzu LEARTIKER ZIRRARA?